

## **2023. URTEAN GIZARTE-BAZTERKETA EGOERAK PREBENITU, SAIHESTU EDO ARINTZEKO BAKARKAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA**

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak bazterkeria-arriskuari aurrea hartzeko, bazterkeria pertsonala, soziala eta lanekoa arintzeko eta herritarren eskubide sozialak benetan baliatzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenei gizarteratzen laguntzeko tresnak arautzen ditu.

Zehazki, gizarteratzeko eta bazterkeria prebenitzeko tresnetako bat Gizarte Larrialdietarako Laguntzak dira, aldizkakoak ez diren prestazio ekonomiko eta subentziorako, ohiko nahiz aparteko gastu espezifikoari aurre egiteko behar besteko baliabiderik gabeko bizikidetza-unitate batean bizi diren pertsonentzat, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitu, saihestu nahiz arintzeko.

Kontuan izanik Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza diren Gizarte Larrialdiko Laguntzetarako baliabideak urriak direla Hernaniko udalerriko herritarren laguntza eskariari erantzuteko, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetatik urtero diru-partida bat ezarri ohi du, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuzko diru-izendapenak ase ezin izan dituen eskaerak artatzeko, baita aipatutako laguntzetan sartzen ez diren eskaerak artatzeko ere.

Bestalde, Estatuko Buruzagitzaren apirilaren 17ko 38/2003 Legearen bitartez, Subentzioen Orotariko Legea onartu da (2003ko azaroaren 18ko 276 zenbakiko EAO), herri administrazioek emandako subentzioen orotariko erregimen juridikoa arautzek; eta horien artean daude toki administrazioako erakundeak, 38/2003 Legearen 3.1b) artikuluan jasotakoaren arabera.

Subentzioen Orotariko Legearen 17.2 artikulua ezartzen du, toki-korporazioen subentzioak arautzeko oinarriak aurrekontua betearazteko oinarrien markoan onartu beharko direla, dela subentzioen orotariko ordenantza baten bitartez dela subentzio modalitate bakoitzerako ordenantza espezifiko baten bitartez; aipatu Legearen hamalagarren xedapen gehigarriak, gainera, 38/2003 Legean araututako prozedurak toki-korporazioen antolaketa eta funtzionamendu baldintzei erregelamendu bidez egokituko zaizkiela ezartzen du.

Aipatutako subentzioei dagokienez, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek Subentzioei buruzko 38/2003 Orotariko Legeari eta hura garatzeko arautegiari –uztailaren 1eko 887/2006 Errege Dekretuz onartutakoari – ez ezik, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeari egokitutako oinarri arautzaileak prestatzeari ekin dio.

Aurrean azaldutako zioak kontuan izanda, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetako Bakarkako Diru-laguntzak arautzeko oinarriok ezarri dira, gizarte-bazterkeria prebenitu, saihestu edo arintzeko eta pertsonen garapen osasuntsua bermatzeko, ondorengo xedapenekin:

## GINARRI ARAUTZAILAK

### *1. artikulua.—Helburua*

1. Deialdi honek Hernaniko Udaleko Gizarte Zerbitzuek gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arreta emateko eta Hernaniko udalerriko pertsonen arau-garapena bermatzeko 2023ko ekitaldirako ematen dituzten izaera sozialeko banakako laguntza ekonomikoak arautzen ditu, norgehiagoka-araubidearen bidez. Hernaniko Udaleko Gizarte Zerbitzuek kudeatu behar dituzte laguntza horiek, eta Hernaniko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa garatzeko eman dira. Plan Estrategiko hori 2023-2025 aldiari dagokio, 2022ko abenduaren 20an onartutakoa.

2. Deialdi honi dagokionez, gizarte laguntzat hartuko da Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak ematen duen edozein laguntza ekonomiko, pertsona onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe. Laguntzaren helburua da pertsonen garapen normatiboa bermatzea eta gizarte-bazterkeria arrisku egoerak prebenitzea nahiz arintzea.

3. Deialdi honetan arautzen diren diru-laguntzen helburua da erantzuna ematea premiazkoa, puntuala, ez normatiboa, iragankorra eta seguruekin errepikaezina den premia egoera bati, beti ere herritarrak berak, bere familiak, beste administrazio publiko batek edo erakunde publiko nahiz pribatu batek artatu ezin duenean.

4. Laguntza horien helburua gizarte zerbitzuen eta gizarte sustapen eta gizarteratze jardunaren esparruan kokatzen da, zeina udal eskumenekoa den, Toki Araubideko Oinarrien 7/1985 Legearen 25. artikuluko, 2. puntuko k) hizkian ezarritakoaren arabera.

5. Era berean, deialdi hau 2005eko otsailaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Hernaniko Udalaren dirulaguntzak emateko araudian oinarritzen da.

### *2. artikulua.—Definizioa, izaera eta ezaugarriak*

1. Bakarkako Diru-laguntzak aldizkakoak ez diren prestazio ekonomiko eta subentziorakoak dira, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitu, saihestu nahiz arintzeko beharrezkoak diren ohiko nahiz aparteko gastu espezifikoei aurre egiteko behar besteko baliabiderik gabeko bizikidetza-unitate batean bizi direnei emateko.

2. Bakarkako Diru-laguntzak helburu jakin baterako dira; beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili.

3. Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango dira indarreko legerian aurrez ikusten diren ekonomia-erakundearen guztietako gizarte-baliabide eta -prestaziorik gabe, horiek onuradunari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legezkiekeenean, baita ohiko etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei legezkiekeenean ere.

4. Bakarkako Diru-laguntzak transferiezinak dira eta horrenbestez:

a) Ez da obligazio-berme gisa eskaintzerik izango.

- b) Ez da lagatzerik izango, ez osorik ezta partzialki ere.
- c) Ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik izango, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko ez bada, deialdi honetako 22. artikuluan ezarritako moduan.
- d) Ez da atxikitzerik edo bahitzerik izango, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan ezarritako kasuetan eta mugekin izan ezik.

### **3. artikulua.—*Gastu espezifikoak***

Bakarkako Diru-laguntzek honako gastu espezifikoak ordainduko dituzte:

A: Zehaztutakoak:

1. Ohiko etxebizitza nahiz bizitokia izan eta hura mantentzeko behar diren gastuak, honako hauek barne hartuta:

- a) Alokatzeko gastuak.
- b) Gizarte larrialdiko egoeraren aurretik hartutako kredituen interes eta amortizazioetatik eratorritako gastuak, etxebizitza nahiz bizilekua erosi izanaren ondorio direnean.
- c) Energia eta komunitate gastuak, baita hiri eta landa-ondasun higieizinei buruzko zergari dagozkionak ere.
- d) Ohiko etxebizitza edo bizilekua bizitzeko moduan jartzeko behar diren gastuak, hala nola:
  - d.1) Altzariak.
  - d.2) Linea zuriko etxetresna elektrikoak.
  - d.3) Etxebizitzan edo/eta komunitatean egin beharreko oinarritzko egokitzapen, konponketa edo instalazioak.

2. Bizikidetza unitateko baten nahiz gehiagoren lehen mailako beharrei dagozkien gastuak, salbuespen egoeratan eta betiere bat-bateko egoera baten ondorio direnean eta erabiltzaileak eragindakoak ez direnean.

Hala nola, jantziak, janaria, osasunerako baliabide materialak, sistema publikoek estaltzen ez dituztenean.

3. 1 eta 2 ataletan adierazitako kontzeptuetako batek aurretik sortutako zorpetze gastuak, baita bizitzako oinarritzko beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren gastuak ere.

4. Aurreko puntuetan jasota ez dauden gastuak, baina Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako langileen iritziz, artatzea beharrezkoak direnak.

B: Pertsonaren garapen osasuntsurako, normalizaziorako eta gizarteratzeko beharrezkoak diren gastuak.

### **4. artikulua.—*Onuradunak***

Bakarkako Diru-laguntza hauek hurrengo beharkizunok betetzen dituztenek jasoko dituzte, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan:

- a) Eskabidea eskatu baino gutxienez sei hilabete lehenago Hernaniko udalerrian erroldatuta egotea, eta bertan izatea benetako bizilekua.

Ez badute gutxieneko epealdi hori betetzen, ezinbestekoa izango da Hernaniko udalerrian erroldatuta egon izana eta benetako bizilekua bertan eduki izana, aurreko 10 urteetatik etenik gabeko bost urteetan.

Beharkizun hori ez dute bete beharko Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1 artikuluan aipatzen diren euskal gizataldeek, betiere artikulua horretan ezarritako gainerako baldintzak betetzen badituzte.

Salbuespen gisa, kontzeptu horrengatik laguntzak eman ahal izango zaizkie Hernanin erroldatuta denbora gutxiago daramatenei, irizpide teknikoak hala ezartzen duenean eta/edo inguruabar bereziak daudenean, hala nola:

1. Erroldan hutsune bat egotea administrazio-arrazoiengatik, pertsona hori Hernanin bizi izan dela egiaztatzen denean.
2. Laguntza emateko une aproposa egiten duten inguruabarrak izatea, eta epea bete arte itxaroteak inguruabar horiek desagertzea eragingo duela.

Nolanahi ere, udalerrian erroldatuta denbora laburragoa duen pertsona bati laguntza ematea proposatzeko inguruabarren salbuespena berariaz azaldu beharko da proposatutako txostenean, Batzordeak balioetsi dezan.

b) Bizikidetza-unitate bat eratzea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legeak araudiak aurretiaz zehaztuta duen bezala.

c) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialekin gizarteratze prozesu batean egotea bazterkeria arriskua sortzen duten faktoreak arintzeko.

d) Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren hartzaileak ez izatea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 52.2 artikuluan adierazten den bezala..

e) 18 urte beteak izatea. Gutxieneko adin-muga horretatik salbu daude, gazteago izanik eta gainerako baldintzak betetzen badituzte, ondorengo egoeraren batean daudenak:

- Ekonomikoki beren ardurapean izatea beste adingabe batzuk zein ahalmen-urritasunen bat edo mendekotasuna onartua duten adindunak.
- Gurasorik gabeko umezurtz izatea.
- Ezkontuta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona bati loturik egotea, gutxienez, sei hilabete lehenagotik.
- Etxeko tratu txarren biktima izatea genero indarkeriaren eta/edo etxeko indarkeriaren biktima izatea.

f) Deialdi honetan 3. artikulura bildutako berariazko gastuei aurre egiteko behar besteko baliabiderik ez izatea, baldin eta gastuek haien bizikidetza-unitateko kideei eragiten badiete; hala, behar besteko baliabiderik ez dela ulertuko da, ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen direnean:

A: Zehaztutako gastuak:

Azken urtean ala prestazioen bidez aurre egin nahi zaien gastuek hartzen edo hartuko duten denboraldian, oinarritzko errentaren gehienezko zenbatekoaren errendimenduak ez izatea -10. artikulua xedatzen duenaren arabera zehaztuak-, etxebizitza unitateko kideen kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte babeserako, jarraian aipatzen den aginduak zehazten duenaren arabera: 2023ko urtarrilaren 31ko AGINDUA, Jaurkitzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira gizarte-larrialdietarako laguntzetan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko 2023. urtean gehienez emango diren diru kopuruak, zehazten baitira laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak, eta finkatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2023. urterako dagokion aurrekontu-muga.

Hori horrela izanik ere, eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen araudiaren bidez zehaztutako kasuetan, beste batzuen errendimenduak ere aintzat hartzen ahal dira, hain zuzen ere, eskatzailearekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi eta prestazioen onuradun izan litezkeen gainerako pertsonenak.

B: Pertsonaren garapenari dagokion gastuak eta aurrez aurretik jakiten ez diren gastuak.

Errendimendu ekonomiko nahikoak ez izatea, azken urtean ala prestazioen bidez aurre egin nahi zaien gastuek hartzen edo hartuko duten denboraldian, zeintzuk gizarte langileak aztertuko dituen eta balorazioa egingo duen proposamena egiterakoan. Proposamena Batzordeak berretsi beharko du.

g) Ondarea

A: Zehaztutako gastuak-

Gizarteratzeko eta gizarte babeserako legokiokeen oinarritzko errentaren urteko zenbatekoa baino bost aldiz handiagoa, batere baliabiderik ez luketenen kasuan, beren artean aipatu diren loturak dituztenen kopuru osoaren arabera, 14/2022 legeak 37. artikuluan ezartzen duen moduan. Ondarearen balioa 10. artikuluan araututakoaren arabera zehaztuko da.

B: Pertsonaren garapenari dagozkion gastuak eta aurrez aurretik jakiten ez diren gastuak gizarte langileak ondarea aztertuko du eta balorazioa egingo du proposamena egiterakoan.

h) Etxebizitza Saileko Etxebide zerbitzuan etxebizitza eskatzaile gisa izena emanda egotea, laguntzak alokatze gastuei aurre egiteko erabiltzen direnean.

i) Ez dira onuradun izango, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua aipatutako egoeraren batean daudenak, laguntzen sistema publikotik baja emanda daudenak, betebeharrak ez betetzeagatik.

j) Hernaniko Udalarekin zorrik ez izatea.

Laguntzen onuradunek zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izateari buruzko beharkizunari dagokionez, salbuetsita geratuko dira premia larriko egoeretan daudenak, gizarte langileek aldeztu aurretik txostena aurkezten baldin badute.

## **5. artikulua.—*Onuradun bat baino gehiago batera gertatzea***

Etxebizitza edo bizitoki berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago badaude, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25. eta 26. artikulua hartuko dira kontuan.

Kasu horietan, ohiko etxebizitza nahiz bizitokia izan eta mantentzeko behar den berariazko gastu bakoitzeko eman daitekeen gehieneko zenbatekoa helbide berean bizi diren bizikidetza-unitate kopuruaren artean zatituko da, eskabide kopurua gorabehera.

#### **6. artikulua.—*Onuradunen betebeharrak***

Bakarkako Diru-laguntzen onuradunen betebeharrak dira:

- a) Prestazioak zein helburutarako eman diren, horrexetarako baino ez erabiltzea.
- b) Eskabidea egin aurretik baita laguntzak jasotzen dituzten bitartean ere, legokiekeen eskubide nahiz prestazio ekonomiko oro baliatzea.
- c) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialari jakinaraztea laguntzak hartzeko baldintzekin zerikusia duen ezein gertaera, hura gertatu eta 15egun naturaleko epean gehienez ere, eta, bereziki, diru-sarreraren, familia-unitatearen osaeraren eta diruzko baliabideen eta ondare-ondasunen ingurukoak jakinaraztea.
- d) Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialari jakinaraztea onuradunaren ohiko bizilekuari dagokion edozein aldaketa edo diru-laguntza onartzeko kontutan izan ziren baldintzen aldaketa nabarmena, hura gertatu eta hurrengo 15egunetan, gehienez.
- e) Ez zegozkien prestazioak edo behar baino kopuru handiagokoak jasoz gero, ez dagokiena itzultzea.
- f) Administrazioaren aurrera agertzea, eta harekin lankidetzan aritzea, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak egin beharreko egiaztatze-jarduketak onartuz eta eskatzen zaion informazioa emanez.
- g) Jasotako diru-laguntza justifikatzea, oinarri arautzaileon 25. artikuluan adierazitako moduan.

#### **7. artikulua.—*Zenbatekoak finkatzea eta ezaugarriak***

7.1. 2023. urterako zenbateko osoa 174.500,00 eurokoa da, eta hurrengo kontu-sailen kargura banatuko da:

— 1 02.480.01.231.11 2022, Bakarkako diru-laguntzak Oinarrizko Zerbitzu Sozialak.

7.2. Diru-sarrerak eta kide-kopurua zenbatzean, gastuak eragiten dien pertsona guztiak hartuko dira kontuan. Horrela, etxebizitzari dagozkien gastuetan, bizikide guztien datuak hartuko dira kontuan, bizikidetza-unitate berekoak izan ala ez (koarriendoetan, azpiauzuneetan, logela-errentamenduetan edo hoteletako ostatuetan izan ezik). Oinarrizko premiak estaltzeko gastuetan, berriz, bizikidetza-unitateak hartuko dira kontuan, banan-banan.

7.3. Ezinbestekoa izango da laguntza eskatzen den etxebizitzan erroldatuta egotea eta benetan bizitzea.

7.4. Oro har, errolda eta bizikidetza-unitatea bat etorriko dira.

7.5. Oinarri arautzaile hauetako 3. artikuluan aurreikusitako eta I. eranskinean zehaztutako gastu espezifiko bakoitzerako, oro har, banakako laguntza ekonomiko gisa eman beharreko urteko gehieneko zenbatekoak ezartzen dira.

#### 7.5.A. Urteko gehieneko zenbatekoak

2023. urterako, oinarri arautzaileetako 3. artikuluan aurreikusitako gastu espezifiko bakoitzerako Banakako Laguntza Ekonomiko gisa eman beharreko urteko gehieneko zenbatekoak, oro har, ordenantza honen I. eranskinean jasotakoak dira.

#### **B. Gehieneko zenbatekoak.**

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak zenbateko jakin bat emango du gehienez espedienteko. Honako hauek dira gehieneko zenbatekoak: BU orokorra: 3.600,00 euro.

Diru-laguntzaren %100 ez dagokionean, eman beharreko gehieneko zenbatekoari edota gastu bakoitzeko zenbatekoari dagokion ehunekoa emango da.

#### **C. Eskabide bakoitzari esleitu dakioken kopurua**

##### **a) Zehaztutako gastuak:**

Eskabide bakoitzari dagokion laguntzaren gehieneko ehunekoa aplikatuko da, bizikidetza unitateak dituen diru-sarreraren eta kide kopuruaren arabera, 2023ko Eusko Jaurlaritzak Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako emandako Aginduak onartzen dituen taulei jarraituz. Diru-sarrera bermatzeko errenta hartzen dutenei beti dagokie %100.

b) Pertsonak beharrezkoa duten garapen osasuntsua bermatzeko, gizarteratzeko eta normalizatzeko sortutako gastuei aurre egiteko: gizarte langileak txostenean finkatutako kopurua.

#### **D Kontzeptuak hierarkizatu eta lehenesteko irizpideak.**

1. Alokairua ordaintzeko laguntza edo kredituen interesak ordaintzeko nahiz kredituak amortizatzeko laguntza hartzen dutenak:

(Aipatutako laguntza Etxebizitzako Prestazio Osagarritik ala Bakarkako Diru-laguntzetatik etor daiteke).

— Gainerako gastu espezifikoetarako laguntzak emateko, gizarte-langileak txosten bat egin behar du aldeztu aurretik, pertsonen osasuna arrisku larrian dagoela egiaztatzeko. Kasu honetan, gehieneko zenbatekoak espediente bakoitzeko 1.000 eurora artekoak ere izan daitezke, eta medikuaren txostena eskatu ahal izango da, komenigarria irizten bada.

2. Alokairua ordaintzeko laguntza edo kredituen interesak ordaintzeko nahiz kredituak amortizatzeko laguntza hartzen ez duteneko zenbateko hauek har ditzakete, honako ordena honetan:

1) Energiak, urak, estolderiak, zaborrek, bizilagunen komunitateak eta hiri- eta landa- Ondasun Higiezinak Gainerako Zergak eragiten dituzten gastuak.

2) Lehen mailako beharrezanetarako gastuak eta pertsonen garapen osasuntsua bermatzen dutenak.

3) Etxebizitzan edo/eta komunitatean egin beharreko oinarritzko egokitzapen, konponketa edo instalazioak.

4) Linea zuriko etxetresna elektrikoak eta altzariak.

**8. artikulua.—Eskabide bakoitzeko gehienezko kopurua eta laguntza emateko irizpideak**

1. Emango den laguntzaren gehienezko zenbatekoa deialdi honetan jarritako irizpideen arabera eskatutakoa da.

2. Kasu partikular bakoitzean gehienez ere aplika daitekeen kopurua, aurreko paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera ezarria, murriztu ahal izango da, ordea, honako hauek kontuan hartuta:

a) Gizarte zerbitzuek ondorengoak egiaztatzeko egiten duten balorazioa: gastua benetan beharrezkoa den eta baztertze-egoeran direnak gizarteratzen laguntzeko garrantzitsua den edo lehentasunezkoa den.

Halakoetan, gehienezko kopuru aplikagarriak, honako irizpide hauen arabera murriztu daitezke:

— %100, gastuak benetan beharrezkoak ez direla irizten denean.

— %75era arte, gastua lehentasunezkoa ez dela irizten denean.

— %50era arte, gastua egiteak ez duenean erabateko garrantzia baztertze egoeran direnen gizarteratze prozesuan.

Murrizketa aplikatuko bada gizarte langileak txosten-proposamena egin beharko du.

Aipatutako murrizketa nahiz ukapena egiteko irizpideak honako hauek dira, eta deialdian gara daitezke:

— Ibilgailuak erostea nahiz haien jabe izatea, ez badira horretarako lan, familia edo bestelako arrazoiak ematen.

— Ondasun higiezin jabe izatea, ohiko etxebizitza salbuetsita (xede horretarako, ohiko etxebizitza gisa onartzen dira trastelekua eta garajea, Hernaniko udalerrian).

— Norberaren kontura jarduten duten langileak:

a) Negozioaren lokalaren jabe izatea.

b) Bi urtetan baino gehiagotan galerak izatea.

— Lanaldi murrizketa izatea.

— Nork bere borondatez lana uztea edo lan-eszedentzia hartzea.

— Aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren datuekin bat ez datozen nahikotasun ekonomikoaren kanpo agerpenak, edo espedientea bideratzen duten gizarte langileak baloratutako bestelako zirkunstantziak.

b) Aurrekontu baliabideak. Kasu honetan, batera jardun ahal izango da, honako bi neurri hauek baliatuz:

b.1) Aurrekontuko kreditu erabilgarrien bitartez eskariei ekitaldian zer mailataraino erantzungo zaion kontuan hartuz, kontzeptuak hierarkizatu eta lehenesteko irizpideak ezartzea.

b.2) Emango diren diru-laguntzen zenbateko osoa aurrekontu baliabideak baino handiagoa baldin bada, onuradun izateko beharkizun guztiak bete dituzten eskatzaile guztien artean hainbanatuko da, bakoitzak eskatutako laguntza -tramitatu duen organoak hasieran proposatutakoa - kontuan hartuta.

3. Kontzeptuak hierarkizatu eta lehenesteko balizko irizpideak ez ezik, murriztekoak ere deialdian jasotzen dira.

4. Artikulu honetan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz ukatuak izan diren berariazko gastuak itxaron zerrendara bilduko dira, ordaintzeko behar besteko kreditu sortu nahiz libratzen denerako.

## **9. artikulua.—*Laguntzak Onartzeko Balidazio Organoa***

9.1.-Banakako dirulaguntzak onartu eta emateko, Balidazio Organoaren eskumena izango da. Erreferentziazko gizarte-langileak proposamen tekniko bat egin beharko du, eta Laguntza onartu ahal izateko balidatzeko Organoaren onespena beharko da. Balidazio Organoa Hernaniko Udaleko zerbitzu Sozialetako gizarte langile guztiek osatutako Batzorde Teknikoa izango da eta astero elkartuko da, ala bestelako larritasun egoerak eskatuta, hala dagokionean.

Deialdiak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da, Balidazio Organoko teknikarien erdien quoruma izatea.

9.2.- Bakarkako Diru-laguntzak eman aurretik, nolanahi ere, gizarte zerbitzuek premia-egoera benetakoa dela egiaztatu beharko dute, baita Hernaniko Udaleko aurrekontuetan helburu horretarako kreditua izendaturik dagoela ere.

## **10. artikulua.—*Baliabideen maila zehaztea eta baloratztea***

10.1. Baliabide-maila zehazteko eta berariaz ezarritako gastu-kasuetan balorazioa egiteko protokoloa (3.A artikulua):

- a. Eskatzailearen eta haren bizikidetzta-unitateko gainerako kideen baliabideak zehazteko, bai eta, hala dagokionean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitakoaren arabera prestazioen onuradun izan daitezkeen gainerako pertsonen dagozkien baliabideak zehazteko ere, horien baliabide guztiak zenbatuko dira, Oinarrizko Errenta eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen dituen araudian xedatutakoaren arabera.
- b. Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean aurreikusitako loturak dituzten pertsonekin bizi diren bizikidetzta-unitate berezien kasuan, bizileku horretan bizi diren kide guztiak eta horien guztien ondarea errendimendu gisa zenbatuko dira, oinarrizko premiak eskatzen dituztenean izan ezik; kasu horretan, eskatzailearen bizikidetzta-unitateak dituen diru-sarrerak eta ondarea zenbatuko dira.
- c. Errendimenduak zehazteko eta ondarea zehaztu eta baloratzeko Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko aipatutako araudian ezarritakoari jarraikiko zaio.

10.2.-Baliabide-maila eta balorazioa zehazteari buruzko protokoloa, pertsonaren garapen-gastuen eta aurrez definitu gabeko gastuen kasuan (3.B artikulua):

- a. Aipatutako ondare-mugak ez dira kontuan hartuko Batzordeak abalaturako erreferentziazko profesionalaren txostenaren bidez, bizikidetzta-unitatearen Arreta Plan Pertsonalizatuaren barruan sartzen diren jardueren aurre egiteko, bertan ezarritako helburuak lortze aldera.

## **11. artikulua.—*Abiaraztea***

1. Diru-laguntzak banatzeko prozedura ofizioz abiaraziko da, Hernaniko Udaleko Gobernu Batzordeak onartzen duen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den deialdi baten bidez.
2. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 23. artikuluko xedapenak eta ematen diren diru-laguntza guztien zenbatekoa gastatzeko baimena biltzen ditu deialdiak.

## 12. artikulua.—*Eskabideak eta dokumentazioa*

1. Bakarkako Diru-laguntzak interesatuek prestazioa eskatutakoan onartuko dira. Eskabidea deialdian ezarritako ereduaren arabera bete beharko da.

2. Eskabidearekin batera deialdian adierazitako agiriak aurkeztuko dira, oinarriotako 4. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen direla egiaztatzeko beharrezko direnak.

3. Egoitza eta bizikidetzari Bizilagunen Udal Errolda agiriaren bitartez egiaztatuko da, edo hala egokituz gero, bizikidetzari buruzko txostenaren bitartez.

4. 39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalak Gipuzkoako Foru Ogasunean zuzenean kontsultatuko du, interesduna hala egitearen aurka azaltzen ez bada, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, salbuespenak eta murrizketak eskuratzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazioa, eta, bereziki, datu hauek:

|                                                                                                                    |               |                 |               |                                                                             |                                     |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|-----------------|---------------|-----------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|
| -Trafikoko                                                                                                         | Zuzendaritza  | Nagusia:        | Ibilgailuaren | datuak                                                                      | kontsultatzea                       |
| -Gipuzkoako                                                                                                        | Foru          | Aldundia:       | Ondasun       | higiezin                                                                    | kontsulta                           |
| - Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak kontsultatzea |               |                 |               |                                                                             |                                     |
| -Foru-ogasunak:                                                                                                    |               | PFEZren         |               |                                                                             | kontsulta                           |
| -Foru-ogasunak:                                                                                                    |               | Ondare-mailaren |               |                                                                             | kontsulta                           |
| -Gizarte                                                                                                           | Segurantzako  | Institutu       | Nazionala:    | Gizarte                                                                     | Prestazio Publikoen kontsulta       |
| -Lanbide:                                                                                                          | Diru-sarrerak | Bermatzeko      |               | Errentaren                                                                  | kontsulta                           |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa:     | langabeziari                                                                | buruzko datuak kontsultatzea        |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa:     | Langabeziaren                                                               | egungo zenbatekoen kontsulta        |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa:     | langabezia-aldien                                                           | araberako zenbatekoak kontsultatzea |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa:     | gaur egun enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta dagoen kontsultatzea         |                                     |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa_     | Data jakin batean enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dagoen kontsultatzea |                                     |
| -Estatuko                                                                                                          | Enplegu       | Zerbitzu        | Publikoa:     | Egungo langabezia-egoerari buruzko kontsulta                                |                                     |

Hala ere, eskatzaileak uko egin ahal izango dio bere datuak kontsultatzeari; kasu horretan, bizikidetzari unitatearen egoera ekonomikoari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du

5. Gizarte zerbitzuek prestazioa bideratzeko behar den informazioa eta orientazioa emango diete eskatzaileei, aldeztu aurretik hitzordua eskatuta.

6. Erantzun gabeko Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako eskabideak Bakarkako Diru-laguntza bihur daitezke, dagokion deialdiak ezarritako moduan.

## 13. Artikulua .— *Aurkeztu beharreko agiriak*

1. Eskatzaileak edo baimendutako ordezkariak sinatutako eskabidea Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetan interesdunei emango dieten ereduaren arabera izan behar du eskabideak.

2. Bizikidetzari unitateko kideen nortasun agiriaren fotokopia. Atzeritarren kasuan Egoitza-baimenaren fotokopia (AIZ), eta horrelakorik izan ezean pasaportearen fotokopia, baita Foru Ogasunak emandako Identifikazio Fiskaleko Zenbakiarena ere.

3. Bizikidetzari unitatean adingabekorik baldin bada soilik: Familia Liburuaren fotokopia (idatziriko orrialde guztiena), edo zaintza eta tutoretza egiaztatzen duten agiriarena.

4. Bizikidetza-unitateko partaideren bat bananduta edo dibortziatuta badago, edo haren ezkontza baliogabetu bada, haren egoera egiaztatzekeo agiriak:
  - Ezkontideak banantzeko, dibortziatzeko edo ezkontza baliogabetzeko epaiaren fotokopia.
  - Hitzarmen arau-emaelearen fotokopia.
  - Mantenu-pentsioa jasotzekotan: jasotako kopuruaren egiaztagiria.
  - Jasotzen ez bada: auzibideko erreklamazio eguneratua.
5. Hirugarrenen datuei buruzko agiria.
6. Bizikidetza-unitatearen aurrezki-libreta eta kontu korrante guztietako unean uneko eta batez besteko saldoa eta interesak; eta bizikidetza-unitateko partaide guztiek eskabidea aurkeztu aurreko urtean zituzten eta dagokion urtean dituzten epe jakin baterako produktuak, inbertsio-funtsak, akzioak, diru-gordailuak... eta azken sei hilabeteetako eragiketak egiaztatzekeo agiriak.
7. Diru-laguntza lortuz gero, dirua sartzea nahi den libretaren lehen orriaren fotokopia.
8. Bizikidetza-unitateko partaide guztien urtean urteko nomina guztien fotokopia.
9. Foru-Ogasuna:
  - Bizikidetza-unitateko 16 urtetik gorako partaide guztien ondasunak egiaztatzekeo agiria.
  - Langile autonomoak: errenta aitopenaren fotokopia osoa.
  - Bizikidetza-unitateko 16 urtetik gorako partaideren batek errentaren aitopena aurkeztu behar ez badu, haren datu fiskalak.
10. Gizarte Segurantzaz: familia unitateko kide guztien pentsioaren egiaztagiria nahiz pentsiodun ez izatearena, eta lan bizitza.
11. INEM: 16 urtetik 65era bitarteko (horiek barne) kide guztien langabezia laguntzaren hartzaile direla/ez direla egiaztatzekeo agiria.
12. LANBIDE: Prestazio hartzaile direla/ez direla egiaztatzekeo agiria, eta laguntza mota eta laguntzaren zenbatekoa. (Non eta Lanbide ez dion Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialei behar besteko informazioa eman).
13. Diru-laguntza behar izatea arrazoitzeko agiriak:
  - Alokairuko etxebizitza batean bizi direnek:
    - Kontratuaren eta errentaren azken ordainagiriaren fotokopia.
    - Etxebizitza berralokatuta baldin badago: Berralokatze agiriaren fotokopia eta honi lotuko alokairu kontratu guztien fotokopiak.
    - Etxebide zerbitzuan izena eman izana edo izena emateko eskatu izana egiaztatzekeo agiriak.
    - Antzinako alokairuetan (formalizatutako kontraturik ez denean): kontratua indarrean dela egiaztatzen duen dokumentua, jabeak sinatua.
  - Berralokatutako etxe batean bizi direnek:
    - Etxebizitza berralokatzeko kontratuaren eta alokairuaren azken ordainagiriaren fotokopia.
    - Etxebizitza alokatzeko kontratuaren fotokopia.
    - Etxebide zerbitzuan izena eman izana edo izena emateko eskatu izana egiaztatzekeo agiriak.
  - Ostatu hartuta edo apopilo daudenek:
    - Ostatu hartzeko edo apopilo egoteko kontratuaren eta alokairuaren azken ordainagiriaren fotokopia.
    - Etxebide zerbitzuan izena eman izana edo izena emateko eskatu izana egiaztatzekeo agiriak.
  - Etxebizitza erosteagatiko hipoteka kreditua edukitzekotan: etxebizitza lortzeko hipoteka-kreditu bat eskatu dutenek, 2023ko hileko kuota, kreditua eskatzeko urtea, eskatutako zenbatekoa, kredituaren titularrak eta kredituaren helburua (etxebizitza bat lortzea) egiaztatzekeo bankuaren agiria.
  - Eskatzen den laguntza erabiltzeko aurrekontua.
  - Komunitatea konpontzeko laguntza. Obraren aurrekontu orokorra eta 2023 urtean zehar partaidetza kuotaren arabera ordaintzea dagokion zenbatekoa.

#### 14. Artikulua—. *Prozedura*

Bakarkako Diru-laguntzak arautzeko deialdi honek finkatzen ditu diru-laguntza hauek emateko prozedura eta epeak eta prozesuan parte hartzen duten organoak.

**15. Artikulua— *Diru-laguntzak ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea***

Ebazpena eta horren jakinarazpena urte naturalaren barruan egingo da beti ere dokumentazio guztia aurkeztuz gero.

**16. Artikulua— *Ebazpena jakinarazteko bideak***

Jakinarazpena zuzenean egingo zaio interesatuari Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetako bulegoetan, eskabidea egiten den egunetik hasi eta sei hilabeteko epean. Epea hilabetez luza daiteke, ebazpen dekretuko datatik aurrera, dekretua dataren ostekoa bada. Interesatua ez bada epe horretan agertu, ebazpena jakinarazitza joko da.

**17. Artikulua— *Errekurtsoak aurkezteko bideak***

Ebazpenak amaitutzat emango du administrazio bidea. Berraztertze aukerako errekurtsioa aurkez daiteke haren aurka ematen duen organoan, hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daiteke, zuzenean, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

**18. Artikulua— *Emandako laguntza frogatzeko epea***

Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorren Arautegia onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 70. artikuluekin bat etorritik, emandako laguntza frogatzeko epea 2023ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, ordainketa 2023ko abenduaren 31ren ostean egin den kasuetan izan ezik, eta kasu horietan, ordainketa egunetik zenbatutako hilabeteko epea izango da laguntza frogatzeko.

**19. artikulua.—*Prozedura bideratzea***

1. Eskabidea bidalitakoan, dagokion gizarte langileak bideratuko du espedienteak.
2. Gizarte langileak eskatzailearen eta harekin batera bizikidetzaren unitatea osatzen dutenen helbidea Hernaniko udalerrikoa den egiaztatuko du.
3. Prestazioa emateko gainerako beharrezkoak ere egiaztatuko ditu, eta hala egokituz gero, bere esku izan eta eskabidea ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen agiriak erantsiko dizkio hari.

4. Gizarte langileak egiaztatuko du aurkeztutako eskabideen edukia, baita eskatuko ere beharrezko irizitako datu eta txostenak beste instituzio nahiz erakunde publiko eta pribatuak ez izan eskatzaileari berari ere, eta horrek ez dio eragingo ondoren horri buruz gara daitezkeen gainerako kontrol eta berrikuspen jarduketari.

Aurreko paragrafoak aipatutako datu eta txostenak soilik eskatu ahal izango dira eskatzaileak oinarri arautzaileotan ezarritako beharrezkoak bete dituela egiaztatze ezinbesteko direnean.

5. Eskabidea osatu gabe aurkeztu bada edo agiriren bat falta bada, 10 eguneko epea emango zaio eskatzaileari, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, hutsak zuzendu eta nahitaezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legean aurreikusitako baldintzetan eman beharko den ebazpenaren bidez.

**20. artikulua.—*Ekonomia-edukiko prestazioak eta baliabideak egiaztatzea***

1. Gizarte langileak egiaztatuko du eskatzaileak edo bere bizikidetzako unitateko kideek jasotzeko eskubidea duten ekonomia-erakundearen prestazio eta baliabideak bere osoan baliatu direla.

Eskubideak bere osoan baliatu direla iritziko da:

a) Gizarte eskumeneko ordenarekin zerikusia duten kasuetan, ebazpena edo, horrelakorik ezean, eskabidea, errekerimendua nahiz salaketa forman gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztu baldin bada.

b) Gainerako kasuetan, eskabidea, errekerimendua nahiz salaketa forman aurkeztutakoan, ez bada behintzat atzera egiterik ezta uko egiterik gertatu, gizarte zerbitzuek ontzat emandako aparteko zirkunstantziak salbu.

2. Baldin eta eskatzaileak edo haren bizikidetzako unitateko kideak baliatu ez dituzten eskubide ekonomikoaren hartzekodun badira, gizarte langileak eskatuko dio eskatzaileari espedientearen izapidetzea amaitu aurretik bere eskubideak baliatu ditzala, indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera. Ezkontzako bizikidetzaren eten egin dela egiaztatzen den kasuetan, mantenu-eskubidea ere sartuko da aipatu eskubide ekonomiko horien artean.

3. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetze aldera, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek interesatuei dituzten eskubideei buruzko informazioa emango die, baita haiek baliatzeko egin beharreko tramiteei buruzkoa ere.

4. Eskatzaileak 2 paragrafoan adierazitako betebeharra betetzen ez badu, eskabideari uko egi diola ulertuko da, baina aurretik ebazteko eskumena duen organoak txostena egingo du eta han adieraziko dira zein den egoera, zeintzuk gertakariak, eta zer arau aplikatu daitezkeen.

5. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, 2 paragrafoan ezarritako betebeharrari itzuri egin ahal izango diote eskatzaileek, gizarte zerbitzuen iritziz nahiz epailearen ebazpen baten ondorioz, beren osotasunari eta segurtasunari eragiten dioten eta beren eskubideak baliatzera bideratutako prozesua atzeratzea gomendatzen duten aparteko zirkunstantziak gertatzen direnean.

## **21 artikulua.—Eskabideen ebaluazioa**

1. Eskabideak aurreko artikuluetan adierazitako moduan egiaztatu ondoren, gizarte langileak espediente osoa jaso eta txostena egingo du.

2. Alkateari helarazi behar zaio espediente osoa. Oinarrizko Zerbitzu Sozialetako gizarte langile taldeak espediente ikusirik, behin behineko ebazpena proposatu behar dio Alkateari..

Hala ere, interesdunek argudiatzen dituzten egitateak, alegazioak eta frogak bakarrik badaude, eta horiek bakarrik hartzen badira kontuan, ez da egin behar izapide hori, eta ebazpen-proposamena behin betikotzat hartu behar da.

3. Alkateak ebazpena onartuko du. Interesdunei jakinarazi behar zaie behin-behineko ebazpena, eta 10 eguneko epea eman behar zaie alegazioak aurkezteko.

4. Interesdunek alegaziorik aurkezten badute, aztertuko egingo dira, eta Oinarrizko Zerbitzu Sozialetako gizarte langile taldeak behin betiko ebazpena proposatu behar dio alkateari.

5. Baliabide ekonomikoak mugatuak dira, beraz, laguntzak onartzerakoan lehentasun irizpide hauekin onartuko dira:

- genero indarkeriaren kasuak
- esku-hartze familiarrak edo bakarkakoak
- laguntza prozesuan
- jarraipeneko kasuak: osasun sisteman, hezkuntzan, gizarteratze programetan.

## **22. artikulua.—*Prozeduraren ebazpena***

1. Alkateak du prozedura ebazteko eskumena. Alkatearen Dekretuak adierazi behar du zer diru-laguntza ematen zaion eskatzaile bakoitzari eta zer baldintzatan, zer eskabide ematen diren uko egindakotzat, eta zer eskabide ez diren onartzen eta zergatik ez diren onartzen.

Diru-laguntza emateko ebazpenak diru-laguntza gastatzeko konpromisoa dakar.

2. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera..

3. Ebazpena onartzeko eta jakinarazteko epea 2023ko abenduaren 31a.

Ebazpena onartzeko eta jakinarazteko gehieneko epea amaitu eta oraindik ez badago berariazko ebazpenik, eskabidea ezetsitzat joko da, administrazioaren isiltasunaren bidez, baina horrek ez du esan nahi administrazioak ebazpena emateko legezko betebeharra ez duenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen duenarekin bat.

Eskabideak administrazioaren isiltasunaren bidez ezestearen ondorio bakarra da interesdunek dagozkien errekurtsioak aurkeztu ahal izatea.

4. Diru-laguntzen helburua kontuan hartuz, ez da beharrezkoa diru-laguntza hauen onuradunen datuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen.

## **23. artikulua.—*Premiazko prozedura***

1. Berehalako konponbidea behar duen behar baterako denean laguntza eskabidea, gizarte langilearen txostenaren arabera (esate baterako, tratu txarreatatik etxetik irten beharra, etxetik kalera botatzea, ohiko etxebizitza sute edo halabeharreko beste zirkunstantzia batengatik suntsitzea) emango zaio lehentasuna administrazio espedienteari, eta berehala bideratu ahal izango da.

2. Eskatzaileak oinarri hauen 4 artikuluko e) atalean adierazitako beharkizuna ez bete arren, egoera zehatzengatik bere baliabideak ezin erabili dituenari ere emango zaio laguntza. Kasu horretan, jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko du onuradunak, laguntzak xede dituen beharrei aurre egitea eragozten zuten zirkunstantziak amaitzean.

Ostatu nahiz antzeko lekuren batean ostatu hartu behar izanez gero, benetan ordaindutako zenbatekoaren egiaztatzea izango da frogagarria.

Etxegabetzeagatik nahiz etxegabetze arriskuan egoteagatik fidantza eskatzekotan, ordaintzerik izan ez dela edo etxegabetzea zergatik gertatu den frogatu beharko da, banku, jabe nahiz epaitegiaren egiaztapen bidez edo jakinarazpen bidez.

Egoera horietan, fidantzaren zenbateko osoa emango da 3.000,00 euroraino, ezarritako mugak kontuan hartu gabe. Alabaina, oinarritzko gizarte langilearen txostena eta aurrekontratua aurkeztu beharko dira, baita fidantza justifikatzeko ordainketa agiria ere.

Fidantza barruan hiru hileko sartuko dira gehienez, higiezin agentziaren bitartekaritzari, lehenengo hilekoari eta fidantzari berari dagozkionak.

Fidantzari dagokion kopurua 3.000,00 euro baino txikiagoa bada, aipatu kopururainoko laguntza eman daiteke edozein eratako alokairurako.

Etxegabetzea berehalakoa baldin bada, eta ez badago aurrekontratua aurkezterik, 1.500 euroko fidantza eman ahal izango da.

## **24. artikulua.—*Laguntzak ordaintzea***

1. Bakarkako Diru-laguntzak emateko ebazpenean adieraziko da nola emango diren diru-laguntzak. Diru-laguntzak emateko moduak hauek izan daitezke:

a)Hernaniko Udalak onuradunaren kontu korrontean egingo du onartutako zenbatekoaren ordainketa.

b)Hernaniko Udalak, onartutako zenbatekoa endosu bidez, ordainketa egin behar den establezimenduari egingo dio zuzenean, kontu korrontean sarrera eginaz

2. Prestazioen ordainketa aurreratu egingo da, justifikazioa egin aurretik eta inolako bermerik exijitu gabe.

3. Onuradunak ez baditu prestazioak helburua betetzeko erabili edo helburua betetzen ari ez delako ageriko zantzuak baldin badaude, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek prestazioak beste norbaiti ordaintzea erabaki dezake, betiere oinarritzko gizarte langileak txostena egin ostean. Laguntza beste pertsona bati emateak ez du eragingo, inoiz ere, hasierako titularitatea aldatzea.

#### **25. artikulua.—Egindako gastuak justifikatzea**

1. Diru-laguntza emateko ebazpenean, Bakarkako Diru-laguntzen onuradunek egindako gastuen fakturak nahiz frogagiriak aurkeztu beharra ezarriko da.

2. Ekitaldi ekonomikoa burutu aurretik aurkeztu beharko dira, eta posible ez balitz, aipatutako ebazpena jakinarazitako egunetik hasi eta hilabeteko epean.

3. Gastuak faktura bidez eta froga-balio bereko gainerako agiri bidez egiaztatuko dira, zuzenbide-merkataritzako trafikoan balioa duten agiri bidez, alegia, eta hala egokituz gero, ordainketa egin izanaren dokumentazio bidez. Aipatutako dokumentu guztiak originalak edo fotokopia konpultsatuak izango dira, eta horrelakorik ezean, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialetako administrazio langileek erkatuak.

4.- Denboran luzatzen diren tratamenduen kasuan, justifikazioa tratamendua amaitu eta 15 eguneko epean aurkeztuko da, betiere ordenantza honetan ezarritako muga barruan.

5. Emandako laguntza justifikatzeko obligazioa bete ezean edo frogagiriak aski ez badira, justifikatu ez den laguntza zatia itzuli egingo da, 22 artikulua ezarritako moduan.

#### **26. artikulua.—Aldizkako ikuskapenak**

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek laguntza ematea eragin zuten arrazoiak bere horretan dirauten egiaztatzeko nahi beste ikuskapen egin ditzake. Horretarako, laguntzen onuradunei administrazioa agertu eta elkarlanean aritzeko eska diezaieke.

#### **27. artikulua.—Diru-laguntzak itzultzea**

1. Onuradunek hartzen dituzten zenbatekoak itzuli egin behar dituzte, baita, hala dagokionean, diru-laguntza ordaintzen zaienetik itzuli egin behar dutela erabakitzen den arte sortzen diren berandutze interesak ere, baldin eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 36. eta 37. artikuluek aipatzen duten egoeraren batean badaude.

Onuradunak itzuli egin beharko ditu, halaber, jaso behar ez zituen edo jaso beharrekoaz gainera jasotako Bakarkako Diru-laguntzak, oinarri arautzaileotako 15. artikuluan ezarritako ekonomia-erakundearen prestazio eta baliabideei dagozkien atzerapenen ordainketa kontuan hartuta.

2. Diru-laguntza itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak ezartzen dituen xedapen orokorrek arautuko dute eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorreko 42. artikulua xedatzen duena aplikatuko zaio. Prozedurak irauten duen bitartean, esan beharrekoa esateko hamar laneguneko epea eman behar zaie interesdunei.

3. Alkateak du eskumena hartzen diren zenbatekoen osotasuna edo zati bat itzularazteko erabakia emateko.

4. Diru-laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen duen erabakia arrazoitua izan behar du, eta berariaz adierazi behar du zergatik itzuli behar den diru-laguntza, zenbat itzuli behar den eta zein den nor bere kabuz itzultzeko epea. Halaber, ohartarazi behar du diru-laguntza finkatzen duen epean itzultzen ez bada, premiamendu bidera joko dela.

5. Diru-laguntza itzultzeko betebeharrak gain, beste zigor batzuk ere ezar daitezke.

6. Aurreko paragrafoetan ezarritako ondorioetarako, Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek ofizioz errekurtoa aurkeztu ahal izango dute onuradunaren bizikidetzaren unitateko edozein kideri egokitutako Bakarkako Diru-laguntzen prestazioen konpentsazioa edo deskontua.

7. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean jaso behar ez bezala jasotako prestazioak itzuli eta konpentsatetik bildutako kopuruak Bakarkako Diru-laguntzen prestazioei aurre egiteko erabili beharko dira.

## **28. artikulua.—*Konfidentzialtasuna***

Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialek espedienteak bideratzea dela-eta jasotako datuen konfidentzialtasuna Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritako moduan bermatuko ditu ,

Hala eta guztiz ere, herri administrazioek elkarlanean jardun behar dutela ulertu behar da, herritarrei arretarik onena eskaintzeko, baita esparru horretan komunikazio bideak ezarri behar dituztela ere, informazio sistema arina eta iraunkorki eguneratua ez ezik herri administrazio desberdinen artean informazio mota jakinak konpartitzeko modukoa ere izan dadin, betiere arreta jaso duenak onatzen emanik eta beharrezko iritzitako segurtasun neurri guztiak hartuta.

## **29. artikulua.— *Arau-haustea eta administrazioko zigorrak***

Arau-haustea eta zigorren araubidea da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko IV. Tituluko eta hiri buruzko araudiko IV. Tituluko, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez 38/2003 Legea garatzeko onartua. Prozedura bideratu behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko araubideari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezartzen dutenarekin bat.

Zigorren bat jartzeak inola ere ez dakar behar ez bezala edo ez zegokion neurrian hartutako laguntzak itzultzeko obligazioa ez bete beharra.

### 30. Artikulua. — *Eskabideak aurkezteko epea*

2023. urtean zehar egin daitezke diru-laguntza eskaerak.

Prozedura baten esparruan ebazten diren eskaerak ezin dira aurkeztu hurrengorako.

2023an Bakarkako Diru-laguntzak lortzeko aurkeztu diren eskaerak eta aurrekonturik ez zegoelako onartzen ez direnak, eskaera bihurtuko dira automatikoki ez onartua.

### 31.- Artikulua. *Itzuli beharrik gabeko laguntzak, aurrerakin gisa nahiz zorrak ordain-tzeko ematen direnak.*

Bakarkako Diru-laguntzak, berez, ez dira -itzuli behar izango, baina, eman aurretik, gastua beharrezkoa dela egiaztatuko da, gastua egin baino lehen.

Hala ere, bi egoera hauek hartuko dira kontuan:

1. Bizikidetza-unitateak epe laburrean diru sarrera garrantzitsu bat izango duela aurre ikusten bada, esate baterako, ordaindutako lan bat lortzeagatik, gizarte prestazioak nahiz pentsioak eskuratzeagatik, oinorde bat jasotzeagatik, irabazpidezko ondasunen likidazioagatik edo beste egoera parekagarriak, laguntza emateko ebazpenean ezarriko da emandako dirua itzuli behar duela, osorik edo zati bat. Azkenean, bizikidetza-unitateak ez badu jasotzen aurreikusitako sarrera, posible izango da emandako dirua itzuli behar ez izatea. Laguntza ematea ebatzi zuen organo berak onartu beharko du onuradunak dirua itzuli behar ez izatea, hark hala eskatuta eta kasuaren gizarte langileak egindako txostenarekin.

Proposamen-txostenean egiaztatzen bada premia egoerak hala eskatzen duela eta, bestalde, aurre ikusten bada epe laburrean lortuko den sarrera nahikoa izango dela eskatutako laguntza itzultzeko, laguntzaren helburuari 7. Artikuluan dagokion ezarritako urteko gehieneko zenbatekoaren halako hiru eman ahal izango da, gehienez, aurrerakin gisa, 3.000,00 eurokoa. Aurreratutako kopurua, ebazpenean ezarritakoaren arabera itzuliko da. Ebazpen hori, bere aldetik, kasuaren arduradunak proposamen-txostenean egindako proposamenean oinarrituko da. Dirua zatika -itzuli ahal izango da, hamabi hilabeteetan gehienez. Bizikidetza-unitatearen egoera sozio-ekonomikoa kontuan izanda eta, batez ere, adingabeen, mendetasun-egoeran daudenen eta muturreko bazterketa egoeran daudenen beharrak aintzakotzat hartuta, kasuaren gizarte langileak hala proposatuta, dirua hilabete gehiagotan itzultzeko aukera eman ahal izango du.

Erakunderen batetik prestazio ekonomikoren bat jasotzeko zain den pertsona bati diru bat aurreratuz gero, aurreratutako diru hura zuzenean Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialei sartzeko eska dakioke dena delako pertsona horri prestazio hura jasoko duela erabakitzen denean. Horretarako, onuradunak diru hura itzultzeko baimena eman behar du (endosu agiri bat).

2. Eskaera aurkezteko garaian, bizikidetza-unitateak, oso egoera ekonomiko larria bizi duelako, ezin baditu oinarritzko beharrak ase (bizitokia eta mantenua), laguntzak eman ahal izango zaizkio eskaera egin baino lehen egindako zorren bat ordaintzeko, baldin eta zor den ondasun edo zerbitzua 7. artikuluan jasotako artean badago. Zorrak ordaintzeko emango den gehieneko zenbatekoa, eta helburu jakin horretarako jasota dagoen urteko gehieneko kopurua izango da. Emandako zenbatekoa ez da kendu beharko bizikidetza-unitate berak urte hartan helburu bererako jasotzen duen laguntzatik, Gizarte Larrialdietako Laguntzak izan nahiz Bakarkako Diru-laguntzak izan. Espedientean zorra eta zorraren zenbatekoa egiaztatu beharko dira eta, proposamen-txostenean, familiaren egoera ekonomikoa azaldu, laguntzarekin lortu nahi dena ere adierazita.

### **32.-Artikulua—Berezitasunak**

Lehenengoa.—Babes eta zaintza edo tutoretza egoerak.

Oinarri onorioetarako seme-alaba motako harremanen pareko izango dira babes eta zaintza edo tutoretza egoerak.

Bigarrena.—Oinarri hauek administrazio-prozedurari buruz arautzen ez duten beste ezertan, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena bete behar da.

Hirugarrena.—Oinarri hauek diru-laguntzen araubideari buruz arautzen ez duten beste ezertan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hari buruzko araudia onartzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua bete behar dira.

Laugarrena.—Alkateak ahalmena du deialdi hau zuzen interpretatzeko, garatzeko eta betearazteko beharrezko neurri oro hartzeko.

**I. ERANSKINA**

**A.- ZEHAZTUTAKO GASTUAK**

**1.- OHIKO ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIA EDUKITZEKO ETA MANTENTZEKO BEHARREZKOAK DIREN GASTUAK, HONAKO HAUEK BARNE:**

**1.1.- ALOKAIRUAREN GASTUAK**

1.1.1.- Hauek dira alokairuaren gastuak ordaintzeko diru-laguntzaren onuradun izateko eskakizunak:

a) Ez egotea odolkidetasunezko edo kidetasunezko bigarren mailarainoko ahaidetasunik eskatzailearen bizikidetza-unitatea osatzen duez edozein kideren eta errentatzailearen edo haren familia-unitateko edozein kideren artean

b) Indarrean egon beharko du jabeak sinatutako edo baimendutako alokairu-kontratu batek. Kontratu horrek bizikidetza-unitateko kideren baten izenean eta haren titulartasuneko kontu batean helbideratuta egon beharko du. Salbuespena egin ahal izango da, erreferentziazko gizarte-langileak proposatuta eta Batzordearen onarpenarekin, zirkunstantzia bereziek hala eskatzen duten kasuetan, bereziki indarkeria matxistaren kasuetan, baldin eta kontratuak erasotzailearen izenean jarraitzen badu eta aldaketa egiteko zailtasunak badaude.

c) Nahitaezkoa izango da alokairuko etxebizitzaren eskatzaile gisa izena ematea Etxebiden, legeak jasotzen dituen salbuespenekin.

d) Errentamenduen, baterako errentamenduen eta azpierreantamenduen kasuan, etxebizitzaren jabea ezin izango da bertan erroldatuta egon.

e) Ez dute alokairuetarako Bakarkako Diru-laguntzak (BDL) eskatzerik izango Dirusarrerak Bermatzeko errenta (DBE) hartzaileek.

1.1.2.- Bizikidetza-unitate errentari bakarra duten etxebizitzaren kasuan, gehieneko muga hilean 300,00€ izango da, eta ezin izango da etxebizitzaren alokairuaren prezioaren % 70 gainditu. Urteko gehieneko muga 3.600 € izango da.

1.1.3.- Etxebizitza zenbait pertsonak alokatu badute edo berralokatuta badago, bi eskabide onar daitezke gehienez, indarrean dagoen araudiak xedatzen duenarekin bat, eta gehienezko diru-laguntzaren zenbatekoa zati bizikidetza-unitateen kopurua egin behar da.

Bi bizikidetza-unitaterako muga 150€ izango da hileko, eta inola ere ezin da etxebizitza alokatzeko prezioaren %80 baino gehiago izan. Urteko gehienezko muga 1.800,00€ izango da.

1.1.4.- Inori ostatu emateko edo inor apopilo egoteko kontraturik badago etxebizitzan, bi eskabide onar daitezke gehienez, aurreko paragrafoak xedatzen duenarekin bat, eta laguntzaren zenbatekoaren muga hileko 150€koa izango da. Urteko gehienezko guztizkoa: 1800,00€.

1.1.5.- Hoteletan, apartamentu-hoteletan edo legez eraturako ostatuetan ostatu hartzen duten bizikidetzak Unitatek (BU) ostatua ordaintzeko diru-laguntza 300,00€ izango da gehienez. Bestalde, diru-laguntzaren onuradun izan daitezkeen BUen kopurua ez da bikoia izango, es-tablezimenduan onartutako gelen kopuruaren arabera baizik. Urteko gehienezko guztizkoa: 3.600€.

#### 1.2.- ETXEBIZITZA EDO BIZITOKIA EROSTEKO EGINDAKO KREDITUEN AMORTIZAZIO ETA INTERESEK ERAGINDAKO GASTUAK IRDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZA:

300€ izango da gehienez, eta hark ezin izango gainditu hileko interesari eta kredituaren hileko amortizazioari dagokion zenbatekoaren %70. Urteko gehienezko guztizkoa: 3.600,00€

#### 1.3.- BEREZITASUNAK:

a) Eusko Jaurlaritzak, beste Administrazio Publiko batzuek edo administrazioen mendeko entitateek sustatutako babes ofizialeko etxebizitzak kasuan, ez da alokairu gastuetarako eta etxebizitza edo bizitokia erosteko kredituen interes eta amortizazio gastuetarako bakarkako Diru-Laguntzarik emango, gizarte-langileak gastu horren benetako beharra dagoela konprobatzen duenean eta Batzordeak hala onartzen duenean izan ezik.

b) Maileguagatik edo edozein modalitateko alokairuagatik (ostatua, azpierrengatua, apopilotza) ematen den BDL bateraezina da beste edozein kontzeptuagatik ematen denarekin.

c) Etxebizitza Prestazio Osagarria (EPO) bateraezina da BDLkin. Salbuespen modura, pertsonaren osasuna arrisku larrian baldin bada, lehen mailako laguntza eskatu ahal izango da, oinarrizko gizarte langileak txostena egin ostean.

#### 1.4.- MANTENTZEKO GASTUAK: ENERGIA, KOMUNITATEA ETA MANTENTZEKO BESTELAKO GASTUAK, BAITA HIRI. ETA LANDA-ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGEI DAGOZKIENAK ERE

a) Alokairua ordaintzeko laguntza edo kredituen interesak ordaintzeko nahiz kredituak amortizatzeko laguntza hartzen dutenek ezin dute hartu gastu hauek ordaintzeko laguntzarik, gastu hauek beste laguntza horien barruan daudela jotzen baita. (Laguntza hori Etxebizitza Prestazio Osagarritik edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzetatik etor daiteke)

#### 1.5.- OHIKO ETXEBIZITZAN EDO BIZITOKIAN BIZITZEKO ETA OINARRIZKO EKIPAMENDUA EDUKITZEKO GASTUAK

a) Alokairua ordaintzeko laguntza edo kredituen interesak ordaintzeko nahiz kredituak amortizatzeko laguntza hartzen dutenek ezin dute hartu gastu hauek ordaintzeko laguntzarik, gastu hauek beste laguntza horien barruan daudela jotzen baita.

b) Ezin da kontzeptu berdinarengatik laguntza jaso izan aurreko 4 urteetan, Batzordeak gizarte-langilearen aldeko txostena berretsi ezean. Ez da onartuko gastu horiek ordaintzeko eskaerak, urtez urte sistematikoki egiten badira.

c) Gizarte-langilearen bisita nahitaezkoa izango da, laguntza onartu aurretik zein ondoren.

d) Kontzeptu hau ez da ordainduko alokairuko etxebizitzetan, babes ofizialeko etxeetan ordaintzeko aukera egongo da, baldin eta hutsik daudela egiaztatu denean.

e) Gutxienez bi aurrekontu aurkeztu beharko dira.

1.5.1.- Gehienezko zenbatekoak:

a.- Altzariak. Oinarrizko altzaritzat honako hauek bakarrik hartuko dira, adierazitako laguntza-mugarekin:

a.1.- Pertsona bakoitzeko ohe (somier) bat. Bi banakako ohe binako ohe batengatik trokatu daitezke horrela eskatzen bada, baina ezin izango dira ordaindu ohe bakoitzak pertsona bakarrentzako. Bikoitza: 100€, Banakakoa 60€.

a.2.- Ohe bakoitzeko lastaira: Bikoitza 150€. Banakakoa 90€

a.3.- Sukaldeko mahaia: 75€

a.4.- Bizikidetzat unitateak dituen kide adina aulki: 25€ aulki bakoitza

a.5.- Adintxikikoak egonda, ikasteko mahaia eta aulkia: 90€

Gehienezko diru-laguntza; 900€

b.- Linea zuriko etxetresna elektrikoak, beharrezkotzat jotakoak. Gehienezko diru-laguntza: 700€. 900€ emango ditu gehienez ere altzarien eta etxetresna elektrikoen gastuak ordaintzeko. Linea zuriko etxetresna elektrikotzat hartuko dira honako hauek, ezarritako mugekin:

b.1.- Hozkailua: 350€

b.2.- Garbigailua: 250€

b.3.- Sutegia edo bitrozeramika: 150€

b.4.- Berogailua edo galdara: 300€

b.5.- Galdara mistoa: 700€

b.6.- Mikrouhin labea: 50€

c.- Etxebizitzan edo/eta komunitatean egin beharreko oinarrizko egokitzapen, konponketa edo instalazioak.

c.1.- Higiezinaren jabeek beste inork ezin du eskatu kontzeptu horretarako laguntza.

c.2.- Kontzeptu hau ez da ordainduko alokairuko etxebizitzetan, bizigarritasun baimenik gabeko lojamenduetan edota etxebizitzako ez den erabilera dutenentzako.

c.3.- Behin bakarrik kobratu ahal izango da laguntza komunitateko obra bakoitzeko.

c.4.- Laguntza eskatzaileak duen jabetzaren ehuneko berdinen proportzioan emango da.

c.5.- GEHIENEZKO LAGUNTZA: 1850€. Honela banatuko dira:

c.5.1.- Etxebizitza konpontzea. Gehienezko diru-laguntza: 700€. Egokitze jotako kasuetan, obra egiteko beharra txosten tekniko bidez berma dezala eskatuko zaio interesdunari, eta etxebizitza erabiltzeko oinarrizko eta beharrezko konponketak bakarrik egiteko emango da diru-laguntza, gizarte-langileak bisita egin ondoren.

c.5.2.- Komunitatean egiten diren konponketak. Gehienezko diru-laguntza: 1850€. Lanen aurrekontu orokorra eta, partaidetza-kuotaren arabera, ordaindu beharreko zenbatekoa eta

obra lizentzia eskatuko zaio interesdunari. Gainera, itzuli beharrik gabeko diru-laguntza eskatu behar diote Eusko Jaurlaritzari.

Gizarte-langilearen txostena kontuan hartuz, etxebizitza edota erkidegoa egokitzeko edota konpontzeko gastuak, edota etxebizitzako edo erkidegoko oinarritzko instalazioen gastuak ordaintzeko eskaerak ezets daitezke, urtez urte sistematikoki egiten badira.

## **2.- PERTSONEK BEHARREZKOA DUTEN GARAPEN OSASUNTSUA BERMATZEKO, GIZARTERATZEKO ETA NORMALIZATZEKO SORTUTAKO GASTUEI AURRE EGITEKO LAGUNTZA**

2.1.- Urteko gehienezko guztizkoa: 3000€

2.2.- BEREZITASUNAK:

Ezkontza-banantzeen kasuan, laguntza adingabe batentzat eskatzen denean, gastuaren erdiaren gaineko laguntza eman ahal izango da, eman daitekeen laguntzaren gehieneko mugaren erdiarekin, ez-ordaintzeagatik salaketa edo epaia betearazteko demanda duten familien kasuan izan ezik, horietan gastu osoaren gaineko laguntza eman ahal izango baita.

2.3.- Bizikidetza-unitateko pertsona baten edo gehiagoren lehen mailako beharrianek eragiten dituzten gastuak, baldin eta sistema publikoek erantzuten ez badiete beharrian horiei.

Diru-laguntza horiek hartzeko ezinbestekoa da kasuan-kasuan dagokion diru-laguntza eskatu izana aurretik. Gizarte-langilearen txostena kontuan hartuz, lehen mailako beharrei erantzuteko gastuak ordaintzeko eskaerak ezetz daitezke, urtez urte sistematikoki egiten badira.

a) Janari gastuak: Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen txosten bidez arrazoituak izan diren aparteko egoeretan, 1000€ko diru-laguntza emango da gehienez, espediente bakoitzeko, DBErik jasotzen ez duten eta DBE baino dirusarrera txikiagok dituzten bizikidetza unitateei, Gastuon barruan esne artifiziala, pixoihalak eta umetxoentzako gauza sartzen dira.

b) Osasun laguntza: sistema publikoek barne hartzen ez dituztenak (betaurrekoak, audiofonoak, dentista, sendagaiak...). Gehienez 3000€ emango da, honela banatu daitezkeenak:

b.1.- Botika: 350€. Laguntza horretatik kanpo daude bai arreta pribatuak, baita publikoak barne hartutako botikak. Gizarte Segurantzak barne hartzen ez dituen gaixo kronikoen botikak ematea aurreikusten da, mediku txostena jaso eta gero.

b.2.- Ortopedia: 350€. Desgaitasuna edo II Mendekotasun gradua dutenentzat, beharrezkoa izango da Foru Aldundira bideratzea laguntza ekonomikoak eskatzeko.

b.3.- Betaurrekoak: 300€. Eskaera egin aurreko lau urteetan kontzeptu bereko laguntzarik jaso ez izanak baldintzatuko du laguntza hau ematea, salbu eta begi bakoitzeko dioptria bat baino gehiago graduatu bada.. Aurkeztutako aurrekontuak eta horien zenbatekoak balortuko dira.

b.4.- Dentista: 1.000€. Honako kontzeptu hauek ez dira ordainduko:; exodontziak, inplanteak eta horiei lotutako tratamenduak, oinarri estetikoak duten ortodontziak, tratamendu estetikokoak oro har, ezta material sofistikatuak ere.

Ez da tratamendurik ordainduko 15 urtetik beherakotan, ezta esne-hortzetan ere. Ortodontziak ordaindu ahal izateko, egiaztatu beharko da ez dutela oinarri estetikorik.

b.5.- Audiofonoak: 500€ bakoitza. Eskaera egin aurreko 4 urteetan kontzeptu beragatik laguntzarik jaso ez izanaren baldintzapean dago laguntza hau ematea, salbu eta entzumen-alaketaren bat izan dela frogatzen bada.

Audiofonia beharrezkoa dela egiaztatu beharko da, medikuaren txostenaren bidez.

2.4.- 1 eta 2 ataletan adierazitako kontzeptuetako batek aurretik sortutako zorpetze gastuak, baita bizitzako oinarrizko beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren gastuak ere: aipatutako kontzeptuetarako arestian adierazitako gehienezko zenbateko berberak.

Ez da derrigorrezkoa izango zorra estaltzea, baina zorra berehalakoa edo saihestezina izatekotan, eman daiteke.

#### **B.- PERTSONAREN GARAPEN OSASUNTSURAKO, NORMALIZAZIORAKO ETA GIZARTERATZEKO BEHARREZKOAK DIREN GASTUAK**

Erreferentziako profesionalak proposatuta eta Batzordeak abalatuta, bizikidetza-unitatearen Arreta Plan Pertsonalizatuaren barruan sartzen diren dirulaguntzak izango dira, plan horretan ezarritako helburuak lortzeko.